

MULTIKIROLA SUPERHEROIAK (7-8 URTE)

 Haurrentzako jarduera

DESKRIPZIOA

7 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera, kirol-hastapenera bideratua, hainbat diziplinatako praktikaren bidez, ikuspegi ludiko, parte-hartzaile eta egokitu batetik.

Saioetan, kirol aurreko jolasak eta hainbat kiroltako jarduera espezifikoak (taldekakoak eta banakakoak) konbinatzen dira, eta parte-hartzaileei jolaserako eta mugimendurako hainbat modu probatzeko aukera ematen zaie. Pixkanaka, oinarrizko alderdi teknikoak, arau zehatzagoak eta benetako joko-egoerak sartzen dira.

Mugimen-trebetasun konplexuagoak garatzen, kirol-jokoa ulertzen eta erabakiak hartzen laguntzea da helburua, betiere motibazioa, parte-hartzea eta gozamena ardatz nagusi direla.

HELBURUAK

- Parte-hartzaileak kirol-diziplina desberdinetan hastea.
- Mugimen-trebetasunak garatzea jolas errealeko testuinguruetan.
- Koordinazioa, arintasuna eta pertzepzio espaziala hobetzea.
- Jolasaren oinarrizko arauak eta dinamikak ulertzea.
- Lankidetzaz, errespetua eta parte-hartzea sustatzea.
- Kirol-praktika jarraituarekiko interesa piztea.

GOMENDIOAK

- Kirol-arropa egoki eta erosoak janztea.
- Ur botila ekartzea.
- Erregularitasunez etorri.
- Jolas eta elkarbizitza arauak errespetatzea.
- Kirol bakar batean espezializazio goiztiarra saihestea.
- Berariazko edozein behar izatekotan jakinarazi.

 Pabiloiko pista

 Talde bakarra:

- Astelehen eta asteazkenetan 17:45etatik 18:40etara.

 2026/10/01etik 2027/05/31era



EDUKIAK

Oinarrizko mugikortasuna



Koordinazioa



Oreka



Espazio / Gorputz pertzepzioa



Erritmo / Gorputz adierazpena



Jokua / Sozializazioa



JARDUERA-PROFILA

Intentsitatea



Zailtasuna



Arreta maila



Jardueren aniztasuna



Motibazio osagaia

